

Noqua!!

H A M A B O S K A R A

2001eko urriaren 12a VI.urtea


Usurbil, 121. zenbakia



**Eskola atarian,
ofizioaren arrastoan**

SETABU TAILERRAK, S.M.

ERREMENTARITZA-GALDARAGINTZA



SOLDADURA

BURDINEZKO ATEAK

BURDIN SAREAK

PLANOTIK EGINDAKO PIEZAK

Eskatu aurrekontua
konpromezurik gabe

Ugarte industrialdea, 7 Pabiloia
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

TELF: 943 36 08 48
FAXA: 943 37 24 67



Hotel

Zaldúa

Jatetxea

- Telf: 943 36 66 20
- Faxe: 943 36 12 67

- × Etxeko giroa
- × Euskal sukaldea
- × Garaiko platerak enkarguz
- × Aparkaleku handia



Hipodromoa, 8- Zubieta



**TXIMINIA
ALTZARIAK**



ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta
lastaira-azpikoen aukera haundia

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

Txerrimunik ordainetan



Aupa **Joxemai**, ze azkar pasatzen diren urteak el Urriaren 2an urtebetze eguna izan zenez zure guraso, emazte eta semeok zoriondu egin nahi zaitugu, zorionak! Ea afari batetara gonbidatzen gaituzun!



Etzeko nagusia atzerapen pixkatekin zoriondu beharko dugu, irailaren 29an bete baitzituen 88 urte. Etzeko txikiak, berriz, 10 urte bete zituen urriaren 10ean, beraz, orain arte bezala jarraitu eta asko ikasi. Azkenik, gure sorginak urriaren 20an beteko ditu hogeita... ez dakit zenbat urte. Zorionak, muxu haundi bana eta ondo pasa etzeko guztien partez.



Zorionak **Peru!** Urriaren 12an zure urtebetze eguna izango denez, muxu haundi bat familiaren partez.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarri jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: urriak 26

Ekartzeko azken eguna: urriak 19

Urria						
Astel.	Asteaz.	Asteaz.	Osteg.	Ostira.	Larun.	Igand.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31	27		29	30

● Hurrengo alea

Noaua aldikaria!
Bordaberri 3
Usurbil

Kexaren bat
baduzu, kriti-
karen bat
eskuarte

badabilkizu edo eta herriko zerbaitetaz hitz egin nahi baduzu guk ikamikan toki bat egingo dizuegu.

Eskutitzak izengoiti batekin sinatu daitezke, baina Noaua'n argitara emateko guk zuen izen-abizenak jakitea ezinbestekoa da. Tes-tuak 2000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.

Eskutitz horiek Noaua! Kul-tur Elkartearen egoitzara eraman edo postaz bidali besterik ez duzue egin behar.

Udaltzaingoaren ordutegia

Astegunetan

6.00/22.00

Asteburu eta jaiegunetan

7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu deitu telefono honetara

943-361112

Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15	06.45	07.05	07.30
07.40	08.05	08.25	07.15	07.35	08.00
08.00	08.25	08.35**	07.45	08.05	08.30
08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
08.40	09.05	09.25	08.15	08.35	09.00
09.00	09.30	09.40 *	08.45	09.05	09.30
09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
09.40	10.05	10.25	09.20**	09.30	10.00
10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
10.40	11.05	11.25	09.45	10.05	10.30
11.30	11.55	12.15	10.20*	10.30	11.00
11.40	12.05	12.25	10.45	11.05	11.30
12.00	12.25	12.35**	10.45	11.05	11.30
12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
12.40	13.05	13.25	11.45	12.05	12.30
13.00	13.30	13.40 *	12.45	13.05	13.30
13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
13.40	14.05	14.25	13.20**	13.30	13.55
14.00	14.30	14.40**	13.45	14.05	14.30
14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
14.40	15.05	15.25	14.20*	14.30	14.55
15.00	15.25	15.40*	14.45	15.05	15.30
15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
15.40	16.05	16.25	15.20**	15.30	15.55
16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
16.40	17.05	17.25	15.45	16.05	16.30
17.30	17.55	18.15	16.20*	16.30	16.55
17.40	18.05	18.25	16.45	17.05	16.55
18.00	18.30	18.40*	16.45	17.05	18.30
18.30	18.55	19.15	17.45	18.05	18.30
18.40	19.05	19.25	17.45	18.05	18.30
19.00	19.25	19.35**	18.45	19.05	19.30
19.30	19.55	20.15	18.45	19.05	19.30
19.40	20.05	20.25	19.20*	19.30	19.55
20.00	20.30	20.40*	19.45	20.05	20.30
20.30	20.55	21.15	19.45	20.05	20.30
21.00	21.25	21.45	20.45	21.05	21.30
21.30	21.55	22.15	21.15	21.25	21.55
22.15	22.45	23.05	21.45	22.05	22.30
22.30	22.55	23.15	23.15	23.25	23.35
00.00	00.25	00.45	00.15	00.25	00.35
01.00	01.25	02.45	01.15	01.25	01.35
02.00	02.25	02.45	02.15	02.25	02.35
03.00	03.25	03.45	04.15	04.25	04.35
04.00	04.25	04.45	05.15	05.25	05.35
05.00	05.25	05.45			
06.00	06.25	06.45			

*Oriaraino **Alaraino

■ Asteburutan

*Oriotik

**Aiatik

■ Asteburutan

Bai, esan?

• Udala	37 19 51
• Udaltzaingoa	36 11 12
• Obrak eta Zerbitzuak	37 01 48
• Anbulategia	36 20 13
• Udarregi ikastola	36 12 16
• Udarregi (Kalezar)	36 45 00
• Agerialde ikastetxea	36 38 95
• Oiarde kiroldegia	37 24 98
• Zumarte	37 15 94
• Etumeta	37 20 01
• Taxi geltokia	36 21 78
• D.Y.A.	46 46 22
• Ertzaintza	112
• Suhiltzaileak	112
• Larrialdiak	112
• Anbulantziak	112
• Posta Kutxa	
• Gure Pakea	37 32 28
• Gure Elkartea	37 17 51
• Arrate egoitza	36 63 40
• Eusko Tren	47 09 76
• Noaua! aldikaria	36 03 21
• Bake epaitegia	37 23 36
• Oa farmazia	36 12 17
• Iturralde farmazia	36 33 95
• Zubietako Herri Batzarra	37 20 77
• Argindarra (Iberduero)	47 09 76

**Argitaratzailea**

Noaúa! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02
E-mail: noaúa.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaúa>

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika,
Olatz Lasagabaster eta Agurtzane
Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe
Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier
Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal,
Alazne Begiristain, Zaloa Arnaiz, Agur-
tzane Solaberrieta, Joseba Pellejero,
Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel
Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz
Goenaga, Urko Manterola, Eneko
Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Jose-
ba Zubeldia, Imanol Goenaga, An-
doni Udabe, Eukene Kamino, Isaak
Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eiz-
mendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus
Urbietta, Iñaki Agirresarobe eta Mari
Angeles Arruti.

Bazkidetza

Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika,
Garikoitz Udabe, Olatz Lasagabaster
eta Agurtzane Solaberrieta.

Informatika

Pili Lizaso eta Oskar Angulo

Banaketa

Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta
Kerman Errekondo

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaúa! hamabostekariak ez du
bere gain hartzen aldizkarian adie-
razitako esanen eta iritzien erantzun-
kizunik.

**Noaúa! Kultur Elkarteko
jendaurreko
ordutegia:**

**10.00-14.00 / 16.00-20.00
astegunetan**

Aginagako frontoia

Badirudi oraingoan
ere usurbilgo udalak
kale egin digula.

Gure herrian frontoia egi-
teko egindako deialdirako
ez omen da inongo eraiki-
tzailerik aurkeztu, beraz,
obren zozketa hutsik utzi
dute.

Egia esan horrelako diru
kopuruak mugitzen ez
gaude ohituta, dena den,
195 milioi pezeta ez da
ahuntzaren eztula. Dirudie-
nez neurri honetako erai-
kuntza bati aurre egitea ez
da bideragarria
eraikitzaileentzat. Usurbilgo
udalak frontoi berriko
obrak aurrera eramateko
diru gutxi eskaini badu
berak jakingo du zein ezku-
tuko arrazoiekin jokatzeko
duen.

Euskal Herriko edozein
bazterretan eta herrirka
txikietan frontoi bat dago-
ela ikusirik, Aginagan aur-
kakoa gertatzea oso larria
eta arraroa da. Udaletxe-
rako zein Foru Aldundirako
deialdi bati uko egitea ez
da normala; bi erakunde
hauek beti ordaintzen bai-
tute. Aginagarekiko duen
politika guztiok aski ezagu-

na baitugu. espaloia egite-
ko orduan, errepidea moz-
tuko genuela adierazi
genuenean egin zuten.
Orain, Foru Aldundiak Agi-
nagan mediana ipintzeko
egitasmoa aurkeztu eta
baimendu du, eta Usurbil-
go udalaren oneritziaren
zain dago negu honetan
obrekin hasteko. Usurbilgo
udalak baimenik emango
ote du?

Orain arteko jarrera ikusi
ondoren aginagarrok ez
gaude urrats bat bera ere
atzera emateko prest.

Jakina da Aginaga Usur-
bilgo kaxkorik urrun geldi-
tzen dela, beraz, lanik
burutzea eta bertan bizi
direnen "boto" kopuru txi-
kiarengandik bere izerdi
preziaturik botatzea ez du
nonbait merezi. 2003an
legealdi hau amaitu egin-
go da eta frontoia egin
gabe egongo balitz
gorriak ikusi beharko lituz-
ke. Zin dagizue ez dutela
esango aginagarrok inda-
rra mihian bakarrik dugu-
nik.


F.A.B. (Frontoiaren Aldeko
Batzordea)



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Kontuz hemen euskaldunak gaituk!

Kontuz hemen euskaldunak gaituk, aspaldi ez nuen ikusi, baina hantxe dago berriz ere Aginagako sarrera batean. Lehen justu beste aldean zegoen; Orio aldetik zetozenentzat jarria; orain, Donostia aldekoentzat.

Beraz, hemendik aurrera kanpotarrek badakite Aginagan kontuz ibili behar dutela, aginagarrak euskaldunak dira-eta. Euskaraz ez dakitenak ez dira mezuaz jabetuko, baina errepideko mezua ikusten duen euskaldunak, berriz, esango du: eskerrak euskalduna naizen, bestela auskalo zer egingo lidaketen Aginagan! Mezuak, niri behintzat, zakur erasokorra duten txaleten sarreran egon ohi dena gogorarazten dit.

Mezua ikusi duen auto-gidariak, geroxeago, gasolindegian gelditzen bada, beste mezu bat jasoko du, erregaia hartu ondoren. Honako hau ez du irakurriko, entzun egingo du eta, aurrekoa ez bezala, hau atsegina egingo zaio tonuan: emakumezko ahots leun eta arrotz batek eskerrik asko eta bidai on bat esango dio.

Bi mezuen egileek, biek, itxura batean behintzat, euskara-

ren erabileraren aldeko mezua helarazi nahi digute. Baina biek huts egiten dute, biek kale egiten dute. Ez batean ez bestean ez dago euskal senik. Gasolindegiko ahots goxoak erdaraz hitz egiten digu, nahiz euskal hitzak erabili. Zergatik ez ote digu esaten ondo joan!, Aginagako edozeinek esango ligukeen bezala. Zergatik esaten ote digu bidai on bat! Aginagan inor txok esaten ez duen bezala.

Ba, kontuz hemen euskaldunak gaituk jarri duenak ere jakin behar luke: batetik, kontuz hitz horrek oso adiera eta esanahi negatiboa duela, mehatxu baten kutsua; eta inor euskarara erakartzea ezinezkoa dela mehatxuaren bidez. Eta, bestetik, gaituk ezin dela erabili nornahirentzat ari denean, mundu guztiairentzat ari denean. Horrelako mezuak jartzen dabilenak jakin behar luke hitz horrek, horrela erabilita, bazter uzten dituela emakumezko guztiak eta, beraz, oso jarrera baztertzaila dela.

Gogoan dut, orain hilabete batzuk, gasolindegiko ahots femeninoa *"bidai on bat"*-ka hasi zenean, norbaitek bere

poza azaldu zuela Noauaren bidez, euskaltasunaren aldetik ona zelakoan. Beste edozein arlotan kalitatea ezinbesteko irizpide bihurtzen ari denean, euskalgintzan, oraindik ere, badirudi edozer eta edonola onartzeko prest gaudela, eta pozik. Ni, berriz, pozik jarri nintzen norbaitek beste aldeko sarreran zegoen mezu idatzia ezabatu zuenean. Seguru asko, ezabatzaileak, mezulariak ez bezala, euskararen kontrako asmoa zuen. Ni, praktikan, ezabatzailea euskararen aldekoagoa izango zelakoan nago.

Mezulariak, temati, mezua berriro errepideratu duenez, ongi etorria emateko asmotan-edo; eta ni handik askotan pasatzen naizenez, han sortzen zaidan egonezina are agotu baino lehen, eskatu nahi diot mezua jarri duenari handik kentzeko edo, bestela, kutsu mehatxuzko eta sexista hori aldatzeko. Ez dauka zaila mezu positiboa eta ez baztertzaila aukeratzen.

Gaizki esanak barkatu eta bidai on bat!

Iñaki Iturain (Aginaga)

Txirikitutik



"Trapitxero kolaboratzaileak hormara!" edo "Txibatoak zuloa" leloarekin hainbat pintada azaldu ziren Kaleberriko hainbat hormetan pasa den urriaren 5ean. Askatasuna plazan, frontoian, Eguzkitzaldeko etxe-etan nonnahi ikusi daitezke pintada hauek.

SANTUENEA

Agustin Esnaola



Auzoko kale-giroaren aldeko lana

Aurreko Noaua! batean, Agurtzanek auzoko notizi edo berri nahiko txarretaz idazten zigun. Auzoan zabalik gertatzen ziren bi dendetatik bat itxi egiten dela zioen.

Auzoko bizi giroaz egiten zuen hausnarketa Agurtzanek. Nire ustez eta arrazoia emanez berari, ze giro geratuko da kaleetan komertziorik edo tabernarik ez bada geratzen gure auzoan?

Galdera ez da txantxetakoa, merkataritza gunek handiak gure inguruan irekitzearen alde apustua egiten duen udalak egin beharko luke galdera. Zein da herriko kale giroaren etorkizuna?

Baina dena ez da ezkorra. Irailaren 22 eta 23an, auzoko Ibai-Ondo elkarteak antolatutako festa ospatu genituen.

Jendearen parte hartzea handia izan da, larunbat goiza eta arratsaldean umeak izan ziren protagonistak. Gauean, diskoteka antolatu zigun Zestoako Imanol Lizaso DisJokeyak



eta arrakasta handia izan zuen. Igande eguerdian, euri jasa handia izan arren, 100 pertsona bildu ziren bazkaltzera auzoko sagardotegian. Bukatzeko arratsaldean txarangaren laguntzarekin alaitu ziren auzoko kaleak.

Esan behar da, eguraldiak lagundu ez zuen arren festa arrakastatsuak izan zirela jendeak parte hartu baitzuen. Auzotarrak mugitu direlako, lotsak ahaztuz dantza egin dutelako eta bazkaltzera animatu direlako, festa arrakastatsuak izan dira. Hau bai dela auzoko kale giroaren alde apustu egitea.

Bukatzeko eskerrak eman nahi nizkieke Ibai-Ondo elkarte-ko antolatzaileei.

URDAIAGA

Joseba Zubeldia



Udazken emankorra

Udazkena iritsi da eta urtaronek bereak dituen lehen hego-haize boladak agertu dira urriaren hasieran.

Zuhaitzetako hostoak hasi dira beren berde kolorea galtzen eta erortzen.

Baina ez dira hostoak bakarrik zuhaitzeetatik behera doazenak. Zenbait fruitu-arbolek beren fruitua eman dute aurten ere eta hego-haizearen laguntzarekin lurrera erortzen hasi dira, jada helduta dauden seinale.

Hauen artean, intxaurrondoak, urritzak, gaiztainondoak... daude. Auzo honetan badira bai hauetako batzuk eta ondo

bilduta daudela esan behar da.

Jasotako intxaur eta gaztainez gain, badira menditik poltxaka perretxikuz jaisten direnak ere onddoak, gibelurdiak... bilduta.

Ehiza denboraldia ere hasi da eta oraindik usoen igaroa hasi ez bada ere hego-haize honek jarraituz gero, tiro hotsak etengabe izango ditugula ez du inork duden

tan jartzen. Beraz, ikusi duzuen modura, udazkena nahiko emankorra dela esan behar auzo honetan.



KALEZAR

Andoni Udabe



Sagardoa: Udazkeneko salda

Oraingoan ez dut oso urrutira jo behar izan Noaualko tartetxo hau beteko duen gai emankor bat aurkitzeko. Balkoira irten eta inguruan nuenari begira jarri naiz pentsakor.

Zuhaitzen hostoek kolore berdea galdu dute eta zuhaitz adarretan irauteko ere nahikoa lan badute bakarren batzuk. Aurpegia hego-haize epel batek laztandu dit eta sudurrea, berriz, tolaean jo berria den sagarraren usain gozoa iritsi zait.

Halaber, auzotar batzuren ehiza kontuek ere nere arreta irabazi dute, izan ere, urte sasoi hau iristeko zuten egonezinaz

eta erositako azken kartutxoez mintzo baitira gogotsu.

Garbi dago udazkena ailegatu dela, ehiztarien eta sagardoaren garaia alajaina!

Urte sasoi hau sagardogileen tzat garrantzi handikoa da, izan ere, otsaila ingurutik aurrera dastatzen den sagardo preziatu hori, orain jaiotzen baita. Orain dela egun batzuk bildutako sagarrak jotzen hasiak dira dagoeneko auzoko sagardogileak; bai sagardotegieta-koak, baita baserrietakoak ere. Azken hauek etxerako bakarrik egiten dute, baina hala eta guztiz ere aipatu gabe ezin utzi. Aurten ere kanpotar bat

baino gehiago izango da auzoan barrena sagardotegi bila galduta ibiliko dena. Kapotarra beharko, ezagunen bat edo bertakoren bat horrela ikustea ez litzateke piura izango eta!

Kontu hauekin guztiekin egarritu ere egin naiz! Hara! Sagardo gozoz beteriko pitxar bat iritsi da nere eskuetara! (Barkatu, baina halako aukera bati ez diot muzion egin! Itxaron momentu bat mesedez. Glup, glup, glup...)

Ostras! Aurtengo sagardoa bikaina etorriko denaren errezeloa daukat. Hilabete batzuren buruan ondo jakingo dugu.

ATXEGALDE

Maria Jesus Urbietta



Udazkenean bete-betean

Badirudi gure auzoa normaltasunera itzuli dela. Udarako opor luzeak pasa ondoren, gure gaztetxo eta txikienak Ikastolara eta haurtzaindegira itzuli dira. Gurasoak ere beren lantoki eta beharretan murgildu dira; azken finean,

gure eguneroko zereginetara itzuli gara. Izan ere, abuztua oso lasaia izaten da auzoan, oso mugimendu gutxi egoten baita urte garai honetan. Oporretan batzuk beren herrira edo familia ikustera joaten dira, beste batzuk, aldiz, urtero txoko ezberdinak ezagutze-
ra.

Gure auzoa berez nahikoa txikia denez bakarti samar geratzen da udara partean, hala ere, urteak joan urteak etorri badirudi gauza batzuk ez direla aldatzen, urte guztian lan eta lan aritzen gara atsedenaldi baten zain eta konturatzerako berriz mar-txan gara.

Gure kaleek ere izan dute oporrik. Urtean zehar, eta batez ere iluntze partean, ezinezkoa da Atxegalden kotxea aparkatzea. Udararen lasaiago egon da auzoa, baina oporrak bukatu eta aurretik genuen arazo berdinarekin egin dugu topo.

Zoritxarrez ez da Atxegalden bakarrik dugun arazoa, herrira joanez gero ere berdina somatzen dugu. Beste auzoetan arazoa are nabarmenagoa izaten da, gainera.

Eta aurrerantzean arazoak konponbide nahiko kaskarra dauka, egunetik egunera kotxe gehiago baitago herriko txoko guztietan.



TXOKOALDE

Mejorak ote?

Hainbatetan hitz egin dugu herrepide nagusian, Txokoalde parean, dagoen bihurtu-neaz. Baina, oraingoan, bestetan ez bezala, berrikuntzekin gatz, Fermindi pareko kurba



asfaltatu egin baitute. Ikusi egin behar hemendik aurrera istripu gehiegi izaten den edo ez.

Beste gai bati helduz, hasiak gara zubi haseran Ilunbeto sagarrak ikusten. Ehiza ere hementxe dugu, gain-gainean eta angulak laster hasiko direnaren itxaropena ere bada inguru hauetan. Urtero bezala, hasia zaigu gaur aurreratzen eta, berri

Imanol Goenaga



ere, hasi gara frontoiko argien hutsunea nabaritzen. Ea aurtan hutsune hori ere konpondu dutela esateko moduan garen.

Sasoiak sasoi, Akerra Gazte-axeak kontzertuak antolatzen jarraitzen du eta udazken partean ere izango dugu bertaratzen direnei zer eskainia. Hala, urriaren 19an, ostirala, "Ira et decesus" eta "Mil hongos" taldeak arituko dira gure gazte-axean gaueko 22.00etatik aurrera.

Hurrengora arte adio! Eta ez ahaztu kontzertu honetara gonbidatuak zaudetela guztiak.

KALEBERRI

Lodosa-Sartaguda ikastolarekin bateginik

Iñaki Agirresarobe



Nafarroa Oinezen aldeko batzordeak aurtengo udan kamisetak, piperrak eta zainzuriak salgai izan ditu herriko hainbat jailetan. Urriaren 21ean Nafarroa Oinez Lodosan denez, beraiei diru-laguntza eta morala ematearren, ibili da herriko elkarte hau. Kanpaina honi amaiera emateko joan den irailaren 23an herri-bazkari bat antolatu zen Lodosa-Sartagudako ikastolaren alde.

Elkartekideek 600000 peztako txeke bat zuten Erriberatik zetozten lau gurasoei emateko. 45 lagun bildu ziren bazkari hone-tan, giro ezin hobean bertsolari eta guzti. Etorritako gurasoek ezin sinetsirik zeuden egin zitzaizen hareragatik eta eman-

dako laguntzarengatik, gehienbat morala. Beraiek hainbat gauza eta ibilera esplikatzen ibili ziren eta zera zioten:

- "Lodosa herriak oraindik euskarari errezelo handio dio eta ikastolara doazen haurrek gorriak ikusten dituzte euskaraz mintatzeko, begiz jota baitago lingua navarrorun, hau da, euskara".

Bestalde, etorri zen haur batek joan deneko hiru hilabete-tan ez duela hitz egiten esan zigun, mespretxatua eta gutxietsita izan baita kolean. Usurbila etorri zenean ea euskara egin zezakeen galdetu zion, eta amak zera erantzun: "herri honetan haurrek euskaraz normaltasunez hitz egiten dute,

gustora hartuko zaituzte".

Dena den, ikastola berria egiten hasiak dira eta 40 guraso elkartu dira zirimolaren aurka, baina gogotsu. 215 miloiko aurrekontuari aurre egiteko prest daude, izan ere, orain egiten ez bada ez baita sekulan egingo. Beraz, hemengo jendea joango den itxaropenez daude eta egoera ikusirik, laguntza deihadarka eskatzen ari dira.

Egoera honek zera erakutsi zuen, hemen, Usurbilen, euskaraz hitz egiteko aukera egonik, gogotik egin behar dela eta utzikariak alde batera laga behar direla, beste zoko askotan egin nahi eta traba ugari aurkitzen baitituzte.

AGINAGA

Iratxe Begiristain



Jaiaren erdira iritsita

Aurtengoan ere dagoeneko erdi bukatuta ditugu San Praixkuak. Aurten egindako apustuari –festaren hiru laurdenak asteburu batean biltzearen erronkari– ez dio, behintzat, muzin egin hego-haizeak.

Programari begira jarritz gero, ezin esan betelana eginez ibili denik Jai Batzordea, inoiz baino mamitsuagoak baitira aurten jai egunak. Goiz, arratsalde eta gau, bada zer ikusi, entzun edo non parte hartu. Pasa den urtean berrikuntza gisa goizaldean zezenak izan bagenituen, aurten zezen mekanikoa aipatu behar. Lehenengo denak korruan jarri ziren zezenaren inguruan eta, ausartenari begi-

ra nahiko barre egin ondoren, zergatik ez? Probatu behar diat! Baina lehenengo bueltan lurrera. Berriro gainera eta “heldu iok lepotiki!” builaka batzuek eta besteak; “altxa ezak esku bat!” deiadarka pasatzen zen jendea benetako zezenak agertu ziren arte. Orduan oraindik ere bazen tartean “Cow-boyrik”.

Igandean, berriz, ezin aipatu gabe utzi sokatira txapelketa. Guztira lau taldek parte hartu zuten; Goitarrak, Gazteak, Sekaia eta Aginagako Kirol Elkartea. Iaz bezala, aurten ere Goitarrak izan ziren garaile, Gazteak atzetik zituztela.

Oraindik, ordea, ez dira festak bukatu. Larunbatean espetxeratuta hamar urte daramatzan Xomorrori omenaldia eskainiko diogu. Goizeko 10.00etan mural pintaketak hasiko du egitaraua, 18.00etan herri-kirolak izango dira eta ondoren bertso doinuek alaituko dute trikipoteoa. 21.00etan herri-afaria izango da eta afal osteko omenaldiak emango du amaitutzat Xomorroren omenez prestaturiko programa. Eguna txukun bukatzeko Trakets taldearekin dantzaldia izango da eliza zaharrean. Gainera, egun guztian Xomorrok berak egindako eskulanak izango dira ikusgai apaizetxean.

ZUBIETA

Mikel Bengoetxea



Endika Abril txapelketaren azkeneko fasea

Uda bukatu zaigun une honetan, erreboteko Endika Abril txapelketa ere aurrera doa eta jadanik azken fasean sartuak gara. Hamar ekipo izan dira bi multzotan banaturik eta lehen faseko ligilla ia amaiturik dago.

Lehenbiziko multzoan, Ustaritzko ekipoa sailkatu da talde buru bezala, partida guztiak irabaziz (aipatu behar, Ustaritztarak ditugula Euskal Herriko eta Frantziako txapeldun) eta bigarren, Hazparneko ekipoa sailkatu da.

Aipatzekoa, multzo honetan, Zubietako tal-

dea hirugarren sailkatu dela Senpere eta Billabonako bigarrenengo taldearen aurretik gertatuz, baino ezin izan dute herri-tarrek, finalerditan sartu. Hala ere, txapelketa ona jokatu dutela esan behar da.



Bigarren multzoan, nahiz eta lerro hauek idazterakoan oraindik partida bat falta den jokatzeke, Baionako taldea da jadanik taldearen buru, eta badirudi Billabonako lehenbiziko taldea sailkatuko dela mul-

tzoaren bigarrenengo lekua hartuz, eta beraz, finalerditako txartela eskuratuz.

Beraz, eta eguraldiak ez badu kontrakorik esaten, hurrengo hilaren 14ean jokatuko dira Billabonako plazan finalerdiak, eta ondoren, hilaren 21ean finala izango genuke Zubietako plazan, eguargariko 11etan.

Ikasketa eta lanbidearen arteko bidegurutzean norabide egokiaren bila

Umeei helduak izatean zer izan nahi duten galdetzen diegunean beti izaten dute ametsen bat. 14 urtera iristean, ordea, etorkizunean zertan lan egin nahi duten pentsatzen hasten dira. Zientzia edo letren adarra aukeratzea dator lehendabizi, batxilergo bat edo bestea aukeratzea ondoren. Azkenik, 18 urtekin azken erabakia hartzeko garaia dator: aurrerantzean zer egin? Lau ikasle trantze hau nola gainditu duten jakin nahi izan dugu.

Duela bi urte Udarregi ikastolatik atera ondoren laurek bide ezberdina hartu zuten. Alex eta Naiarak argi zuten zer egin nahi zuten: lehenengoak ibilgailuen mekanika eta bigarrenak ileapaindegitza eta estetika. "Hortzak ateratzerako ibilgailuen mekanika gustatzen zitzaidala esan daiteke" dio Alexek- Udarregin D.B.H. bukatu nuenean Oreretan modulu hori egiteko aukera banuen, baina azkenean Zubietan mantenimendu elektromekanikoa ikasi eta aurten Elgoiba-

rreren hasi naiz nahi nuena ikasten". Naiarari antzekoa gertatu zaio. "Txikitatik gustatu izan zait mundu hau eta ileapaindegitza ikasketak egin ondoren estetikari heldu diot".

Zer egin aukeratu ezinik

Unai eta Ainarari, ordea, gehiago kosta zaie Batxilergoa egin ondoren karrera aukeratzeari. Unai batxilergoan zientifiko-tekniko adarra aukeratu zuen eta azken urtea zer ikasi behar duen pentsatzen eman du. "Injinerutzak dituen alor desberdinetatik bat aukeratu behar eta elektronika aukeratu dut. Urriaren 1ean hasi nuen ikasturtea eta momentu honetan non sartu naizen ere ez dakit. Hasieran bost urteko karrera egiteko asmoa nuen, baina gero, ondo pentsatu ondoren, hiru urtekoarekin hasi naiz. Bost urte denbora asko da eta erdi bidean geldituz gero ez daukazu inolako titulurik. Hiru urtekoa egin ondoren, orde, goi mailako titulua atera daiteke". Ainarak, aldiz, derri-

Unai Aizpurua Nogales



📅 18 urte

📚 Elektronika injinerutza egiten hasi da aurten EHUK Donostian duen fakultatean

📅 3 urteko karrera

"Batxilergoan zientifiko-tekniko adarra aukeratu nuenez, injinerutzak dituen alor desberdinetatik bat aukeratu behar eta elektronikaren bidea hartu dut. Aukeraketa egiterakoan etorkizunean ere pentsatu beharra dago"

gorrez aukeratu behar izan du bost urteko karrera. "Ez nekien zer egin eta informatika aukeratu nuen. Hasieran hiru urteko karrera egiteko asmoa nuen, baina ez nuen horretarako nota nahikorik".

Etiket gertu ikasten

Ikasketak aukeratzen direnean ikasi behar duzuna gus-tukoa izatea garrantzitsua da. Hala eta guztiz ere, badaude erabakia hartzeko momentuan kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk: etiket gertu ikasi nahi izatea esate baterako. Ainarak etxean egon nahi izan du, bizitza hemen eginga duelako eta Unai ere gertutasuna kontuan

Lauek etiket gertu ikasi dute, batzuek halabeharrez eta besteek nahiago izan dutelako

Naiara Errasti Eskudero



📅 18 urte

📚 Ileapaindegitza egin ondoren estetika egiten ari da Zarautzen

📅 Urte eta erdiko ikasketa

"Txikitatik gustatu izan zait ileapaindegitza eta estetikaren mundua eta Udarregitik ateratzerakoan zer egin nahi nuen garbi nuen. Estetika ikasketak amaitzean espezializatze ikasketa egitera Bartzelonara edo Zaragozara joateko asmoa dut"

Alex Udabe Pagola

📅 18 urte

📅 Mantenimendu modulua egin ondoren Ibilgai-luen mekanika ikasten hasi da

📅 2 urteko modulua

"Txikitatik ikasi nahi nuen ibilgailuen mekanika, saltsa horretan ibiltzea betidanik gustatu izan baitzait. Hala ere, lehendabizi mantenimendu ikasketak egin nituen Zubietan eta aurten hasi naiz mekanika ikasten"

hartu du. "Bost urteko karrera egitera Bilbora joan behar nuen eta nik nahiago nuen etxean gelditu. Ez bakarrik bizi edo lagun berriak egiteko beldurra dudalako, baina bost urte kanpoan ikasten egote hori...". Naiarak, aldiz, orain Zarautza joaten bada ere, estetika bukatzean kanpora joateko asmoa du. "Estetikan espezializatzeko asmoa dut eta horretarako Bartzelona edo Zaragozara joan beharko dut".

Etorkizuna eta lan mundua

Ainararen esanetan etorkizunari begiratu beharra dago ikasketak aukeratzerakoan. "Informatika ikasketak amaitzean lan asko dagoela esaten dute, eta zer egin ez nekienez karrera hau egitea erabaki nuen". Unai ere iritzi berekoa da. "Ikasketak amaitzean lana aurkitzea oso zaila izango dela jakinda hiru edo bost urtez ikasten egotea ez da erraza. Etorkizunari begiratu beharra dago".

Beste biek, ordea, ez dute kezka haundirik. Alexek, adibidez, kamioi tailer batean lan egin du dagoeneko. "Ibilgailuen mekanikak irteera gutxi dituela diote, tailerren batean

lana aurkitzea zaila dela, baina ni titulurik gabe eta nire kontura ikasitakoarekin bost hila-betez kamioi tailer batean lanean aritu naiz. Lanik ez dagoela? Nahi izanez gero lana badago". Naiarak ere estetika amaitzean lana izango duela uste du. "Ilea-paindegitza

ikasketak amaitu ondoren udan bi hilabetez aritu nintzen lanean. Jarraitzeko aukera banuen, baina estetika ikasten hasi nahi izan dut. Hala ere, iaz hau ikasi zuten guztiek lana aurkitu dutela jakiteak lasaitasuna ematen du".

Eta ikasketak amaitzean zer?

"Niri informatika programa propioak sortzea eta hauek arrakasta izatea gustatuko litzaidake. Hori da informatika ikasten duten guztien ametsa-dio Ainarak- Hala ere, lan bat izan eta bizi ahal izateko adina diru izatea ere ez litzateke txarra izango". Ibilgailuen tailerra eta ilea-paindegia bat jartzea da Alex eta Naiararen ametsa. "Badakigu zaila izango dela baina...". Unai, berriz, hankak lurrean izan behar direla uste du. "Pausoz pauso ikasten

Lanik ez dagoela? Alexek oso argi du nahi izanez gero lana badagoela

joan eta bukatzean ikusi beharko da zer aukera ditudan. Lana egiteko aukeraren bat izango dudalakoan nago. Hasierakoa ez da agian lan ona izango, baina pixkanaka-pixkanaka lan hobeagoa lortzeko aukera izango dudalakoan nago".

Ametsak gogoan

Futbolari, astronauta, aktore, sendagile... umetan amets ez betetzen zaigu burua eta urteek aurrera egin ahala, ilusio horiek gertuago edo urrunago izaten dira. Alexek oso argi zuen eskuak belztuta egin nahi zuela lanetik etxerako buelta; baita Naiarak besteen buruak atondu nahi zituela ere. Unai eta Ainara ametsen bidetik urrundu dira. Batak ekonomista izan nahi zuen eta, bestea, guztiak dantza batean jartzen zituen abeslaria. Eta zuk gogoa al duzu zer izan nahi zenuen?

Ainara Arnaiz Ibarguren

📅 18 urte

📅 Informatikaren injinerutza egiten hasi da EHUK Donostian duen fakultatean

📅 5 urteko karrera

"Nik neronek ere ez dakit zergatik hasi naizen Informatika ikasten; besterik gabe aukeratu dut, lana dagoela esaten dutelako agian. Egun guztian ordenadore aurrean egoten den horietakoa ez banaiz ere, gustura nago aukeratu dudanarekin"

Herriko etxebizitzaren balore katastralak hirukoiztu egin dira batezbeste

Dagoeneko batzuk zuen etxebizitza, garaje edo lokal baten balore katastralaren berri ematen dizuen agiriren bat jasoko zenuten Foru Aldunditik, besteok, berriz, laister jasoko duzuela ziur egon. Balore hori batazbeste hirukoiztu egin da Usurbilen, eta udalak zerga tipoa jaitsi badu ere, aurtan usurbildar bakoitzaren Ondasun Higiezinaren Zerga aldatu egingo da.

Asko dira Usurbilen etxe bat edo lokal bat duten herritarak. Guztira 3.000tik gora dira Usurbilen etxebizitza, garaje, lokal, pabiloi eta herrilurren kontribuzioa ordaintzen duten herritarak. Ondasun bakoitzak bere zerga du. Zerga honi kontribuzioa deitzen zitzaion lehen, orain, aldiz, Ondasun Higiezinaren Zerga deitzen zaio.

Ondasun bakoitzak bere balorea du. Horrela, etxebizitza, garaje, lokal, pabiloi eta hiri-orube bakoitzak bere balore katastrala du. Orain Foru Aldundiak Gipuzkoa osoko balore katastral guztiak eguneratu ditu. Egia esan, bazegoen premia, aurreko baloreak oso

zaharrak baitziren. Batzuk duela 25 urte ezarritakoak eta beraz, oso zaharkituak.

Herriko etxebizitza gehien baloreak igo dira

Foru Aldundiak balore katastralak eguneratzean merkatuko prezioetara inguratu dira. Horren ondorioz gehienak igo egin dira, baina badira jaitsi diren bakar batzuk ere. Herriko etxebizitzaren baloreak batez beste hirukoiztu egin dira. Badira askoz gehiago igo direnak ere (ia 10 aldiz), baita mantendu edo jaitsi direnak ere. Baina batez beste hirukoiztu egin dira Usurbilen, Gipuzkoa osoan baino gutxiago (ia 5 aldiz).

Baloreak nabarmen igo direnean, zergaren tipoa jaitea

erabaki du udalak eta ez du egoera aprobetxatu nahi izan diru gehiago jasotzeko. Orain arte indarrean egon den tipoa %0,5514koa izan da, hemendik aurrera, ordea, aho batez onartu da tipoa %0,185 izatea. Horrela, Foru Aldundiak baloreak hiru aldiz igo dituenek, udalak tipoa hiru aldiz jaitsi du eta ondorioz orain arte jasotzen zuen diru multzo berdintsua jasoko du.

Usurbildar bakoitzaren zerga, ordea, aldatu egingo da. Haziendatik jasotako datuen arabera 1800 errezibo inguru gehiago ordaindu beharrekoak izango dira, eta beste 1200 errezibo gutxiago ordaindu beharrekoak. Aldaketak aldaketa, bakoitzak bere ondasunaren balorearen arabera zerga ordaintzea juxtuagoa izango da Xabier

Ondasunaren lekua	Zenbat metro	Balore katastrala 2001	Tipoa 2001	Erreziboa 2001	Balore katastrala 2002	Tipoa 2002	Erreziboa 2002
Kale Nagusia	89	4.521.989	0,5514	24.934	17.034.535	0,185	31.514
Kale Nagusia	120	9.765.993	0,5514	53.840	24.928.498	0,185	46.118
Alperro buru	78	4.058.316	0,5514	22.378	12.880.788	0,185	23.829
Galtzara gaña	80	6.585.892	0,5514	36.315	19.078.162	0,185	35.295
Kalezar	51	1.786.228	0,5514	9.849	7.944.037	0,185	14.696
Belmont kalea	125	8.282.514	0,5514	45.670	19.599.956	0,185	36.260
Santuenea	62	1.624.570	0,5514	8.958	7.478.229	0,185	13.835
Santuenea	40	2.363.333	0,5514	13.031	5.869.500	0,185	10.859
Zubieta	153	7.716.537	0,5514	42.549	19.001.176	0,185	35.152
Aginaga	186,5	4.928.548	0,5514	27.176	13.075.279	0,185	24.189
Aginaga Elutx	80	1.733.205	0,5514	9.557	10.140.223	0,185	18.759
Urdaiaga	155	2.442.344	0,5514	13.467	9.822.271	0,185	18.171
Txikiardi	76	1.948.474	0,5514	10.744	7.681.146	0,185	14.210
Txokoalde	270	8.193.603	0,5514	45.180	31.124.545	0,185	57.580

TABERNA-JATETXEA



ANTAXETA

EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL

TEL: 943 37 03 44



HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17

Euskal presoak etxera!



Olano udaleko diruzainaren esanetan. "25 urtetan zehar pilatutako desfasea zuzentzera datoz balore berriak, teoriar behintzat".

Balore katastral berri guztiak laister jakinaraziko ditu Foru Aldundiak. Bertatik esan digutenez urrian bidaliko dituzte postaz gehienak. Hainbeste erreziboen artean okerren bat ere egongo da eta ez da harritzekoa izango herritarrek erreklamatu nahi izatea. Horretarako prest daude Foru Aldundia eta udala. Balore katastralei buruzko kezka Foru Aldundiak argituko ditu, bere bulegotan edota 900 710017 telefonon. Udalak ezarritako tipoari buruzko kezka, berriz, udaletxeko bulegoan edota 943 376070 telefonora deituta argituko zaizkizue.

Behin Foru Aldundiaren jakinarazpena jaso ondoren

Balore katastralak finkatzeko erabili diren erizpide garrantzitsuenak

1- Azalera

Etxebizitza batek 150 metro karratu baditu eta besteak 80 biak elkarren ondoan badaude lehenengoak balore katastral haundiagoa izango du.

2- Eraikuntzaren kalitatea.

Nola dauden eginak, zer materialez egin dagoen...

3- Aintzinakotasuna

Etxe berriak hobeak direla kontsideratzen da eta aintzi-

nakotasunak balorea kentzen dio.

4- Kokapena

Eraikuntza bat Donostian kokatuta egotea edo Usurbilen egotea ez da berdina. Usurbilen ere ez da berdina eraikuntza bat leku batean edo bestean egotea. Leku baloratuenak kaxkoa, Txikierdi eta Kalezar dira. Balorazio gutxienean dutenak, berriz, Santuenea, sakabanatuta dauden baserriak etab.

zalantzak dituzten herritarrei laguntzeko gertu dago udala eta bidezkoa den kasutan baita erreklamazioa egiten laguntzeko ere. Jakina, erreklamazioak aurrera egin


dezan, oinarri sendoa izan beharko du eta agiriak erantsi beharko ditu (eskriturak, planoak, neurketak etab.).

Aginagako frontoia egiteko eskaintzarik ez da izan

Eraikuntza enpresik ez da aurkeztu Aginagako Ariztitxo pilotalekua eta plaza egiteko udalak antolatutako lehiaketara. Proiektuaren egileek aurkeztutako aurrekontua 195 milioi ingurukoa izan zen eta enpresa batzuk lan honetarako interesa agertu badute ere badirudi diru kopuru batzuk, hormigoia eta zulaketarena esate baterako, nahikoa baxu daudela.

Lehiaketa hutsik gelditu bada ere, udalak ohiko proze-

su berri batekin hasi beharrean lehiaketa negoziatu bat egingo du. Prezioak gehienez %10 igo ditzake udalak eta gutxienez 3 enpresek egin beharko dute beren eskaintza.



Atalluko lur beltza

Atalluko industrialdea eraikitze-ko lanak aurrera doaz. Bertako lur beltza aprobetxatze aldera, udalak herritar guztiei lur beltza dohain hartzeko aukera eskaini nahi die. Baldintzak: lurraren garraioa hartzailearen kontura izango dira eta partikularren eskaera bakarrik hartuko dira aintzat. Hau da, enpresek ez dute lurra dohain hartzeko aukerarik izango. Lurra hartzeko eskaerak udaletxean aurkeztu beharko dira urriaren 26a baino lehen.



Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa



Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



EDARITEGIA

kafe berezia

San Esteban kalea, 8
TLF 36 27 70

20170
USURBIL

Joxe Mari Lertxundi, 50 odol emanaldi baino gehiago

Gipuzkoako Odol Emaleen Elkartek 25 eta 50 odol emanaldi egin dituzten Oria Beheko eskualdekoak omenduko ditu datorren urriaren 21ean, Aginaga sagardotegian izango den bazkarian. Bertan izango da Joxe Mari Lertxundi usurbildarra ere, 51 emanaldi egin ondoren urrezko domina jasoko duen herritar bakarra izango baita aurtengoan.

Noiz eta nola animatu zinen lehen aldiz odola ematera?

1976ko uztaillean eman nuen lehen aldiz odola. Gure hiloba zanak Leuzemia gaixotasuna zuen eta transfusioak egin behar zitzaizkionez berarentzat odola emateko aurkeztu nintzen. Azkenean ez nuen eman, nahikoa odol bildu baitzuten. Hala ere, orduan odola ematen hasi nintekeela pentsatu nuen eta geroxeago eman nuen lehen aldiz odola.

Garai hartan ez zegoen gaur egungo azpiegiturarik ezta?

Oso odol emaile gutxi zeuden. Ordurako Usurbilen odola eman zitekeen, baina mugimendu gutxi zegoen. Pentsa, garai hartan odola behar zenean familiako jendeak edo inguruko jendeak eman behar izaten zuen...

Odola ematerakoan beldurrik ez al duzu izaten?

Hasterakoan beldur piska bat izaten da, baina behin odol emanaldi batzuk egindakoan baso erdi bat edatea bezala izaten da. Odola eman eta gero ahuldu egiten direla esaten dutenak badira, niri, ordea, ez zait horrelakorik gertatzen.

Inoiz larrialdirik pasa al duzu?

Behin egon nintzen gaizki. Okerreko zainen bat harrapatu eta hatz bat nahikoa gaizki eduki nuen. Orduan odola emateari utzi nion, baina gero berriz hasi eta nire odolak ez duela balio esaten didaten arte jarraitzeko asmoa dut. Gustura joaten naiz odola ematera, laguntza garrantzitsua baita gaur egun; lehen baino emaile gehiago badaude ere etengabe odola eskatzen dute, edozein momentutan izaten baita horren beharra.

Zer esango zenioke odolik ematen ez duenari?

Emateko lasai, ez dela beldurrik izan behar. Lehen erizain bakarra egoten zen, baina orain dena kontrolatuta dago. Odola ematen ari zaren bitartean zerbaite gertatuta ere inguruan izaten dira hainbat erizain.



► Haritz Harreguy

Sen taldean gitarra jotzen jarraitzen badu ere, Etzakit taldeko Xabier Solano abeslari eta trikitijoleak sortu duen 4 Itzal talde berriaren "Denek dakite" lehen lanean parte hartu du usurbildarrak. Gitarra jotzeaz gain berak grabatu, ekoitzi eta nahastu du diskoa. Baxuan Koldo Soret dago (Utikan, Mugatik), baterian "Txiki Kashbad" eta tes-tuak Jon Garmendia "Txuriak" egin ditu. Nahiz eta tar-tean erdi balada moduko kanta pare bat izan, punk-rock inguruko doinuak astintzen ditu 4 Itzalek.

► Labrit

Izenburua zehazteko badu ere, dagoeneko bere bigarren diskoa grabatua du Labritek Elkarlanean estudioetan. Produkzio-lanak Kandi Fernandezek (Baldin Bada, Minxoriak, Sustriak...) egin ditu eta folk ukituak desagertu eta bere ahotza pop eta rock-arekin bateratzen dira lan berri honetan. Danik, "Baldin Bada", gitarra jo eta hiru kanta konposatu ditu eta Juanjo "Momau" k jo du baxua. Jimmy Arrabit (Itoitz, King Mafrundi...) da Labriten aldean jarraitzen duen bakarra.

► Ikasle eguna

Iaz Amurrión izan zen festaren antzekoa izango da aurtén Usurbilen. Datozen azaroaren 16 eta 17an Ikasle Abertzaleak-ek antolatuta "Ikasle eguna 2001" ospatuko da Usurbilen. Hitzaldiak, antzerkiak, mahai inguruak etab. izango dira larunbatean zehar eta gaueko 20.30etatik aurrera, berriz, Su Ta Gar, La Polla, Hamlet eta Berri Txarrak-en kontzertua izango da.

Hego-haizea nagusi Aginagako San Praixkuetan



Urriaren 13an espetxeraturik daramatzan Xabier Aranburu "Xomorro"ren omenaldiak datorren urtera arte agur esango die San Praixku jaiei. Hilaren 3tik 7a bitartean, ordea, hego haizeaz kutsaturiko jai giroa nagusitu zen Aginagan. Pirritx eta Porrotxen emanaldiak (Porrotx falta zen) eta sokatira saioak jende ugari erakarri zuten plazara. Gautxoriek ere ez zuten juergaren bat egiteko

aukerarik galdu. Aurten, gainera, zezenak izan dira protagonista nagusiak. Zezen mekaniakoaren gainean jarri zirenak behin eta berriz erortzen ziren koltxoneta gainera. Xexenkak, berriz, alde batera eta bestera bueltaka ibili ziren inor harrapatu ezinik. Izan ere, ikuskizunari begira jende dexente bazegoen ere, gutxi izan ziren xexenen aurrera ateratzeko ausardia izan zutenak.

Juan Altunaren haziendak hiru sari irabazi ditu

Tolosa Gipuzkoako baserritarren hiriburu bihurtu zen pasa den urriaren 6an. Gazta lehiaketaz gain Gipuzkoako Ganadu lehiaketa izan zen bertan. Alpina, frisona, pirenaika, blonda eta limousin arrazako 105 behi aurkeztu ziren lehiaketa honetara, guztiak Gipuzkoako baserrietan hazitakoak.

Juan Altuna usurbildarrak limousin arrazako behiak eraman zituen sariren bat irabazteko asmotan eta oraingoan ere ez zen esku hutsik itzuli etxera. Lehen postu bat eta bi bigarren postu lortu zituen azken urteetan hainbat sari irabazi dituen Zelai-Haundi baserriko ganadu zaleak.

DROGA TRAFIKOA

30.000 dosi kokaino atzeman zituen Guardia Zibilak herrian eta hiru lagun atxilotu zituen

Guardia zibilak 30.000 dosi kokaina atzeman zituen Urriaren 2an Usurbilen, eta droga trafikoa lotuta egon zitezkeen hiru lagun atxilotu zituen. Atxilotuak J.X.A.Z. eta R.A.Z., Donostiako 32 eta 39 urteko anaiak, eta Pasai San Pedroko 29 urteko S.D.P. dira. Espainiako Barne Ministeriotik jakinarazi dute, salerosketan ari ziren atxilotetaren unean.

TXIKIZIOAK

Pasa den urriaren 2an eta 3an txikizioak izan ziren Aginagan Hastapen Tailerrera-ko udalak duen lokalean. Bertan, pintaketa probetarako erabiltzen zituzten hormak bota eta txikitu zituzten.

Dirudienez Aginagako gazteek burutu zuten ekintza hau. Herri afaria egiteko erabili nahi zuten leku hau, baina horretarako ezinbestekoa zen horma horiek kentzea. Urriaren 2an udaleko ordezkariak eta Aginagako gazteak adostasun batetara iristen saiatu baziren ere saiakera bere horretan gelditu zen, eta hurrengo egunean horma batzuk lurrean puskatuta agertu ziren.

TXURRUT

TABERNA

Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1
Tel: 943 36 00 80



TXIRIBOGA TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

San Praixkuetako sokatira saioan Goitarrak garaile



Goitarrak taldeak bigarren urtez jarraian San Praixkuetako sokatira saioan garaipena lortu zuen pasa den urriaren 7an. Lau talde izan ziren lehian: Goitarrak, Gazteak, Sekaia eta Aginaga Kirol Elkarteak. Talde guztiek elkarren aurka bina tiraldi egin zituzten finala nortzuk

jokatuko zuten erabakitzeke. Goitarrek tiraldi guztiak irabazi zituzten, Gazteek hiru eta beste biek bat. Gauzak honela, Goitarren eta Gazteen artekoa izan zen azken lehia, baina argazkian dituzuen horiek ez ziren Gazteen taldeari tiraldirik irabazteko aukerarik eman.

Hiru idi 3.800 kiloko harriari tiraka

Ez zen Usurbilen idi-demarik izan, baina ikusmin handia sortu zuten San Praixku egunean Aialko Izetaren idiek. Azaroaren 1ean lau idirekin 3.800 kiloko haundiarekin ahalik eta plaza gehien egitea da Izetaren asmoa, baina egun horretan egin zuten entrenamendu saioan hiru idik harri hau eraman dezaketela argi delditu zen.



Zesta puntan Europako txapel-dun

Karlos Aizpurua usurbildarrak klubaren arteko Europako txapelketa eskuratu zuen pasa den irailaren 29-30ean Andoaingo Gazteleku elkarteak ordezkatzuz. Koldo Badaran bikotekide zuela, 35-34 irabazi zieten La Coruña taldea ordezkatzeko zuten Alez Hormaetxea estatubatuarra eta Unai Aberasturi bizkaitarra osatutako bikoteari. Finalerdietan, berriz, Frantziako txapelketa irabazi zuten Iparraldeko Goizeko Izarra taldeko bikotea gainditu zuten.



Emaizak

Futbola

Irailak 29-30

Hernani **0** - Usurbil F.T **0** (Neskak)

Usurbil F.T **1** - Luberri **1** (2. jub.)

Urriak 6-7

Usurbil F.T **0** - A. Vitoria **6** (Neskak)

Beraun **1** - Usurbil F.T **3** (2. jub.)

Eskubaloia

Urriak 6-7

Usurbil K.E. **22**-Elgoibar **17** (2.N.)

SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA
10su
Ugaldea poligonoa 36 - 2º - Esk
Usurbil - Gipuzkoa
37 19 54



Igandetan ganba-ziri mundialak!

BORDATXO
EDARITEGIA

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42

INDUSTRI ETa
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA

Piper ontziratuen merkatuan leku bat izan nahi dute herriko piperrek

Herriko zenbait piper ekoizle bildu eta udalaren laguntzaz "Agiña piperrak" sortu zene- tik lau urte pasa dira. Piperra ontziratu eta pixkanaka-pix- kanaka merkatuan lekutxo bat egin nahian dabilta. Urriaren erdira gerturatzeko ari bagara ere jo eta ke lanean dihardute oraindik, piper lan- dareek piperra ematen jarraitzen baitute.

Duela urte batzuk Ibarrara edo Bilbora saltzen zituzten piperrak herrian gelditzen dira azken urteotan. Ez piper guz- tiak, batzuk lehengo bezeroe- kin jarraitzen baitute, baina herriko zazpi ekoizle bildutako piperrak, behintzat, "Agiña piperrak" izenarekin merkatura- tzen dira. Aurten eskuarte- an zenbat piper izan duten ez dakiten arren, iazko ekoizpena zertxobait igo dela esan zigun **Iñaki Labaienek**. "Urtetik urte- ra, ekoizpena zertxobait haunditzen ari gara. Nahikoa lan motela da, poliki-poliki joan beharrekoa, baina aurre- ra goaz".

Izan ere oraindik lanean ari dira "Agiña piperrak" elkarte- ak Atxegalden daukan egoi- tzan. Udan 25 pertsona inguru ibili dira goiz, arratsalde eta gauez lanean eta orain, berriz, 12 pertsona dira piperraren on- tziratze prozesuan lanean ari direnak. "Ekarritako piperra pisa- tu, gainbegirada bat eman eta ontziratzen hasten dira langile- ak. Garbitzerakoan gutxiene- ko kalitatea ematen ez duten piperrak alde batera uzten dituzte, eta besteak bi edo hiru ontzi ezberdinetan sartzen dituzte. Ondoren, makina baten bidez ozipina bota, tapak jarri eta etiketatzeko prest egoten dira ontziak".



Hala ere, ontzi hauei irteera ematea izaten da zailena. Piperren mundu honetara sartu diren azkenak dira eta merkatuan bidea zabaltzeko zailtasunak dituzte. "Agiña piperrak" sortu zenetik Lur-Lan elkarte- an sartuta daude eta beren ekoizpenaren zati haun- di bat elkarte horretatik bide- ratzen dute merkatura. Horrez gain, beste banatzaile batzu- ren bidez bezero berriak lor- tzen saiatzen ari dira.

"Agiña piperrak" Eusko Label kalitatea du. 1997. urte- ko martxoan sortu eta gutxira Eusko Label-aren barruan sar- tzea aholkatu zieten eta hala- xe egin zuten. "Eusko label kalitatea izateak bere gauza onak baditu. Jaso dugun laguntzaz gain asko ikasi dugu, eta azkenean bezeroa- ren onerako da. Izan ere, araudi bat betearazten digute eta horrek piperraren kalitatea hobetzen du".

"Piper frijituek saltsa sortzen dute tabernan"



Paulino Ibarguren

"Bentatik nator bentara noa" taberna

Noiz hasi zineten piper frijituak sal- tzen?

Agiña piperrak sortu zenean, duela lau urte inguru. Piperra promoziona- tzen hasi zirenean guk piperrak eska- tu genizkien tabernan saltzeko.

Eta zer moduz saltzen da?

Oso ondo. Hasierako urtea zoraga- rria izan zen eta urtez-urte hobetzen joan da. Hori bai, piper denboraldiak irauten duen bitartean ateratzen ditugu piper frijituak. Uztailean hasi eta urrian bukatzen dugu.

Piper frijitua jateko ohiturik ba al dago?

Jendeak gustura jaten du udan, izan ere segituan atera daitekeen zerbait da, momentukoa. Pentsa, kanpoko jendea soilik piperra jatera etortzen da...

Hala ere batzuetan piper minek zeresan ugari sortzen dute.

Nik uste dut morboa sortzen duela, "pikatuko ote duen ala ez"... izuga- rrizko saltsa sortzen dute piperrek. Ba- tzuk joko baten moduan hartzen du- te: piper mina tokatzen zaionak eron- da ordaindu behar duela esaten du- te, eta jende askok mina jaten ari ba- da ere disimulatu egiten du. Beste ba- tzuk, berriz, piper mina tokatzen zaie- nean momentu horretan, behintzat, ez dute gehiago hartzen. Aurten, or- dea, piper minak oso gutxi izan dira.

“Gaur egungo abesti ezagunak erakusten saiatzen gara gure ikasleei”



- 1984/85 ikasturtean sortua
- 125 ikasle ditu gaur egun, gehienak 6-18 urte bitartekoak
- 13 irakasle
- 11 instrumentu desberdin eta musika mintzaira ikasteko aukera
- Aurten 3 abesbatza dituzte:
 - 6 eta 9 urte bitarteko umeei osatzen dutena
 - 8 eta 15 urte bitartekoek osatutakoa
 - Aurten osatutako 16 urtetik gorakoena

Instrumentu desberdinen hotsa lau haizetara zabaltzen da Zumarte musika eskolatik. Musika mintzairarekin hastearekin batera instrumentu aukera zabala izaten dute bertan hasten diren guztiek. Bidean gelditzen dira asko, baina beste ikasketak alde batera utzi eta musikatik bizi izatera iritsi nahi dutenak ere izaten dira.

Gizartea aldatuz doa eta Zumarte musika eskola ere bai. Urte batzuk pasa dira garai berrietara egokitu eta kontserbatoriaren sukurtsala izateari uko egin zionetik. Ordura arte azterketak, musika doinu ezagunak, araututako ikasgaiak izaten ziren nagusi. Orain, berriz, jolasekin hasi eta hamai-ka instrumentu desberdin ikasteko aukera izaten dutela dio Jaionek. “Azken urteetan umeen martxa jarraitzen dugu. Lehen araututa zegoen dena,

abesti zehatz batzuk ikasi behar ziren, baina orain gaur egungo abesti ezagunak irakasten saiatzen gara”.

Instrumentuak aukeratzekoan ere herritarren ohiturak aldatu egin dira. Eskusoinuaren eta txistuaren nagusitasuna alde batera gelditu da eta kitarak hartu du hauen lekua. “Gaur egun musika talde asko daude eta hauen eragina nabarmena da gazteen gain. Musika mintzairaren ondoren kitarra ikasten hasten dira asko, bai klasikoa eta bai elektrikoa, eta beste instrumenturen bat jotzen dutenak ere kitarra ikasi nahi izaten dute”. Izan ere, Zumarteko irakasleek beraien nahi dutena ikasteko gogoz ikusten dituzte herriko musikariak. “Pasotismoaren birus orokorra Zumartera ere iritsi da. Beraien nahietara moldatu behar izaten dugu irakasleok, alderantzizkoa ia ezinezkoa da gaur egun”.



Ikasturte honetako berrikuntza nabarmenena, ordea, abesbatza haundiaren sorrera izan da. Aurten abesbatza utzi behar zutenek, 15-16 urtekoek, jarraitu nahi zuten, eta beraien artean beste urteetan ibili direnetako batzuk animatu eta 17-18 lagun inguruko taldea sortu dute. Entsaioei ekin badiete ere, oraindik proiektua finkatzen ari dira, baina abesbatza honetan parte hartu nahi duten guztientzat zabalik daude ateak.

**Zure
publizitatea
jarri nahi
baduzu, deitu
943 36 03 21
telefonora!**



MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia
hemen aurkituko duzu

Udazkeneko moda berria zuretzat!

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

P A T R I

J A T E T X E A
Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6,
Tel.: 943 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)

Ospearen teloloia noiz irekiko zain

Antzerkigintzan lehen pausoak ematen hasi diren bi gazte usurbildar dira Iker Nogales eta Joseba Errasti. Udarregi ikastolan antzerkigintza tailerra aukeratu zuten 6. mailan eta pauso horrek mundu honetako teloloia ireki zien. "Goenkale" eta "Hasiberriak" telesailetan noiz edo noiz agertu badi-ra ere, ez dira bertako gazteak bezain ezagunak egin, baina beren etorkizuna antzerkiari lotuta ikusten dute biek.


Ikastolan antzerkigintza tailerra aukeratu zutenean erabaki hark beren etorkizuna baldintzatuko zuenik ez zuten uste. Beste hiru lagunekin batera beraientzat ezezaguna zen tailer batean sartu ziren, baina pixkanaka-pixkanaka antzerkiaren arra barneratuz joan dira. "Hasiera batean tailer hura zer zen ere ez genekien.-dio Ikerrek- Aukeretako bat zen eta proba modura hura egingen hastea erabaki genuen". Ikastolan antzezlan batzuk taularatu ondoren Kalezarko jailetan beraien dohainak jendau-

rrean aurkezteko aukera izan zuten eta Santxabel jailetarako beste bat prestatuta bazuten ere, azkenean bertan behera utzi behar izan zuten.

Telebista probatzeko aukera ere izan dute biek. Hilabetean bi aldiz joaten da Joseba Goenkalean lan txikiren bat egitera. "Ikastolan antzerki tailerrean genbiltzanez kurikulum-a bidaltzeko esan ziguten eta niri deitu zidaten. Hasieran bakarrik joateko esan zidaten, baina grabaketa batera biok joan ginen. Faxez gidoia bidaltzen didate eta niri dagokidan testua ikasi behar izaten dut grabaketara jan aurretik". Iker, beriz, behin izan da Goenkalean eta beste behin "Hasiberriak"-en.

Antzerkigintza ikasten jarraitzeko asmoa dute

Hala ere, Ikerrek Josebak baino esperientzia haundiagoa du antzerkigintzan. "Momentu honetan batxilergo artistikoa egiten ari naiz eta azken hiru urte hauetan kultur etxe desberdinetan dauden antzerki talde batzuetan aritu naiz". Horietan parte hartuaz dagoeneko hirugarren mailara iritsi da hirugarren urtean. Joseba, aldiz, Udarregi ikastolako antzerki tailerrean dabil. Antzerkigintzan jarraitzeko asmoa dute biek eta antzerki munduan norbait izateko bidean zailtasunak ikusten badituzte ere, gogor



Joseba Errasti

lan egiteko prest daude. "Mundu horretan sartzea zaila da, baina ateak irekitzeko ahalegin guztiak egingo ditugu. Antzerki tailerrean hasi ginenean asko gustatu zitzaigun eta Mendi" irakasleak jarraitzera animatu gintuen".

Etorkizunean "arte dramatikoa" ikasi nahi dutela garbi dute biek, baina horretarako kanpora joan beharko dute. "Euskal Herrian ez dago hori egiteko aukerarik. Iruñean Erdi Mailako Interpretazio ikasketa jarri dute, baina bestela Madril, Bartzelona edo beste toki batetara joan behar da. Bi etxe desberdin daude, batean lau urteko ikasketa egin behar da eta bost urtekoa bestean". Nora ez dakite baina leku horietako batetara joan eta interpretazioa ikasten saiatuko direla esaten dute biek.

Beraien ametsak egi bihurtu bitartean telebistako aurpegi ezagunen itzalean jarraitu beharko dute lanean, baina beraien irudimenak ez du etenik. Josebari telebistako aktorea izatea gustatuko litzaioke, Ikerri, beriz, berdin dio, antzerkia eta telebista gustukoak ditu eta.

Josu Aranberri



Iker Nogales



**Maider
Makazaga**



❑ 25 urte

❑ Añorgako
Txiki Park-eko
zuzendaria

❑ Magisteritzako
ikaslea

Haurtzaroko oroitzapenak

Ez dakit hego haizearen eraginez edo udazkenaren etorrera dela medio, baina egun hauetako hostoen erortze apalak eta zuhaitzen biluzteak haurtzaroko oroitzapenak dakarkit burura.

Gogoan ditut nire senideekin pasatzen nituen egun pozgarri haiek. Goizean jaiki orduko eguna nola pasa eta zer egin pentsatzen geunden. Egia esan, ez genuen ezer askoren beharrik izaten geure abenturak egiteko.

Baserrian bizi ginenez ez genuen alboan ez goxoki dendarik ez eta txirrista, kolupio edo antzekorik ere. Honek, noski, inbidia latz pasarazten zigun herriko jendearekiko, baina, hala eta guztiz ere, nahikoak genituen lau adartxo inoiz hegan egingo ez zuten kometak egiteko. Adartxoak elkarri lotu, erdian geuk egindako marrazkiren bat jarri eta zelaian behera hura noiz aireratu tuko korrika ibiltzen ginen.

Beste batzuetan, zokoren batean zegoen ohol batekin eta aitari ohostutako lau gurpiltxorekin goiti-beherak egin eta bidean gora eta behera ibiltzen ginen gurasoak haserretu eta gordetzen ziguten arte.

Bestalde, makina bat aldiz joaten ginen inguruko basoetan barrena bertan zeuden ur geldite-etako edo abere asketako zapaburuak harrapatzen. Harrapatu ondoren zer egiten genuen, auskalo! Baina, nire oroitzapenik politenak lau egur xixtrinekin egiten genituen txabolatxoetan ditut.

Edozer gauza baleko izaten genuen txabolatxoa osatzeko edo barrua betetzeko. Egurrekin egiten

genituen paretak, baita sabaia ere ahal bagenuen; eta bestela plastiko batekin estalita. Berdin zitzagun nola gelditzen zen baina geure txokoa izateak nolabaiteko xarma zuen geuretzat.

Norbaitek hitz hauek irakurtzean zertan ari ote naizen pentsatuko du, baina gogoeta hauen arrazoiak honakoa da; urteak daramatzat haur eta gazteen inguruan lanean eta iada esperantza galdua nuen. Nintendoak, game boy-ak, play station eta antzeko horiek guztiak sortzearen ondorioz talde jo-

kuak desagertuak ote zeudenaren irudipena nuen.

Bi hitzetan esatearren, trizikloan ibiltzetik motoan ibiltzera pasatzen zirela ikusten nuen eta neure buruari zera galdetzen nion: non daude bizikletan egindako mendi bueltak eta hartutako kazkarreko eta belaun urratuak?

“Nintendoak, game boy-ak, play station eta antzeko horiek guztiak sortzearen ondorioz talde jokuak desagertuak ote zeudenaren irudipena nuen”

Baina, joan den egun batean adiskide batekin berriketan nebilela, auzo bateko haur eta gazteen ibilerak kontatzen hasi zitzaidan eta zein izango nire sorpresa eta adin ezberdinetako haur eta gazteak bildu eta txabolatxoa egin omen dute txokoren batean. Ziur nago beraien artean nahiko iskanbila izango zutela zerekin egin eta nola egin baina kontua da egin, egin dutela. Baina ez da hemen amaitzen; haur hauek parkean ordu luzeak eman baino nahiago dute beren gixa bazterrak nahasi eta abentura bila ibiltzea. Honekin ez dut esan nahi parkeak gogoko ez ditudanik eta ongi ez daudenik, zeren parkeak ere ongi pasatzeko parada baitira herrian, baina erabat poztu nintzen hitz horiek entzutean! Haur hauek izango dute zer kontatua lagunartean!



Lehiaketa



Zer dago faltan, zer soberan?

Asmatzaileen artean
Patri jatetxean bi
pertsonentzat afaria
zozketatuko dugu

Aurreko argazkia



Erantzuna



Irabazlea

Aitor Landaluze


Saria

Boedatxon bi pertsonentzat afaria

Xinkildegia

Lentzeria,
gizonezkoentzat arropa,
haurren jantziak,
etxerako behar dituzunak

Arizeta 1 behean,
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87



Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

JUANTXO

burdindegia
kale nagusia 10 Usurbil
37 00 08



ARRAINDEGIA
PELLO



Arizeta Kalea, 1
Tlf 36 21 64
USURBIL



Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

Kale Nagusia 10
Tlf. 943 37 33 40
943 37 09 13

LABE-GOXO
Labe-goxo - Goxo-labe

URRIAK 12 ostirala

- Usurbilgo Gazte Asanbladak antolatutako **akanpada-entzerroa** frontoian eta dema-plazan gaur eta bihar.

URRIAK 13 larunbata

- Espetxeraturik 10 urte daramatzan **Xabier Aranburu "Xomorrori" omenaldia** Aginagan.
10.00etan: **mural pintaketa**.
18:00tan: **herri kirolak**.
Ondoren: **herri-trikipoteoa bertsolariekin**.
Gaueko 9etan: **herri afaria**
Ondoren: **omenaldia**.
Gaueko 12etan: **dantzaldia TRAKETS taldearekin** eliza zaharrean.
Egun osoan zehar Xomorroren esku lanak ikusgai egongo dira apaiz etxean.

URRIAK 19 ostirala

- "Ira et decesus" eta "Mil hongos" taldeen kontzertua Akerra gaztetxean gaueko 22.00etatik aurrera

OHARRAK

- ✎ Munalurran garaje bateko marra saltzen da. Telf. 943 362424
- ✎ Yamaha XJ 600 motoa daukat salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.
- ✎ Betaurreko batzuk galdu dira anbulategi inguruan funda gris batekin. Aurkitu dituenak udaletxera eraman ditzala.
- ✎ Lonja bat, batez ere trastero bezala erabiltzeko, erosiko genuke. Kalezar auzoan egon behar du derrigorrez.
- ✎ Telefonoa: 943. 36.14.49. Ordu-tegia: 13.30etatik 14.30 etara eta 20.00etatik -20.30etara.
- ✎ Txori kaiola haundiak ematen ditugu modu onean. Telf. 943 364354
- ✎ Motozerra elektrikoa salgai. Sugurra prestatzeko primerakoa. Telf: 943 364354
- ✎ Usurbilen pisu bat osatzeko jende bila nabil. Deitu 943 793147 edo 617788538 telefonoetara .
- ✎ Abuztuaren amaieran betaurreko graduatuak galdu nituen Urbil-Usurbil ibilbidean. Fundarik gabe, hori eta marroi antzekoak. Telf. 943 371495
- ✎ Giltza batzuk galdu ditut Eguzkitzaldea inguruan. Aurkitu dituenak 652718884 telefonora deitu dezake.
- ✎ Neoprenozko traje bat dut salgai. Rip Curl marka eta L taila. Prezio interesgarria. Telf. 653728059.
- ✎ Udarregi ikastolan eskola kiroleko monitoreak behar dira. Deitu 943361216 edo 943370645 telefonoetara.
- ✎ Pisu bat dut salgai Atxegalden. Haundia eta ikuspegi ederrarekin. 22 milioi pezeta. Telf. 943370147 edo 616235366
- ✎ Neska bat eskaintzen da gaue-tan umeak zaintzeko. Telf. 943 371447 (Belen)
- ✎ Umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko neska bat behar dut. Lan ordutegia goizeko 8.00etatik 14.30etara. Telf. 943366952
- ✎ Pisukide baten bila gabilta Lizarran pisua osatzeko. Interesatuak deitu 699 876 702 telefonora.
- ✎ Trialeko motoa salgai. Montesa Cota 335. 150.000 pezeta. Interesatuak gauean deitu 943 370767 telefonora.
- ✎ Usurbilgo taberna batean lan egiteko pertsona bat behar da. Interesatuak deitu 943 360080 telefonora (Marijo).
- ✎ Neska bat eskaintzen da arratsaldetan ordu pare batez haurrak zaintzeko. Interesatuak deitu 943 366485 telefonora.

Urteko jarduera ekonomikoen gainera zerga

Usurbilgo udalerrian jarduera ekonomikoren bat burutzen duten herritar eta enpresei jakinarazten zaie urriaren 1etik azaroaren 10era bitarteko lanegunetan, biak barne, ordaindu ahal izango dela borondatezko epean Ekonomi Jardueren gainera zerga.

Irailaren 10a baino lehen helbideratutako ordainagiriak banku edo aurrezki kutxatik kobratuko dira zuzenean 2001ko urriaren 20an.


Helbideratu gabeko ordainagiriak, orde, zergadunak adierazitako helbide fiskalera bidaliko dira Urriaren aurreneko astean, **Udaletxeko zergabilketa bulegoan, Kutxa, Euskadiko kutxa edo Gipuzkoano banketxean** ordainduak izan daitezten helbide fiskalera bidalitako ordainagiria erakutsi beharko delarik.

Era berean, zergadunek helbideratu gabe dituzten ordainagiriak domiziliatzeko aukera izango dute ordainagiriarekin bat igortzen den helbideratze eredu bate eta udaletxera zuzendu beharko dute-larik edo banketxean ordaintzen den kasuan bertan agindua eman-
nez.

Egunero goizeko 9:00etatik eguerdiko 14:00arte zergadunak ordainagiriak ordaindu ahal izango ditu. Urriaren 20a iritsi eta, zergadunak domiziliatu gabe duen kasuan, ordainagiria etxean ez badu jaso, Usurbilgo udaletxeko zergabilketa zerbitzuan eskatu beharko du borondatezko epea amaitu baino lehen. Domiziliaturik daukatenean, azaroaren haseran banketxetik jasoko dute ordainagiria.

Adierazitako epe hori bukatu ondoren eta zergadunak zerga ordaindu ez duen kasuan, Gipuzkoako Ogasun Foralak premiamendu bidezko jarduenbideari ekingo dio besterik gabe, ordaindu ez diren kuotak %20ko gainera, berandutza interesak eta dagozkion gastuak hartu beharko dituztelarik bere gain.

Matrikula irekia Etumeta AEK Euskaltegian



Euskara ikasteko hamaika bide omen daude...

aek-n onena

Gure eskaintza ondorengoa da:

- ✗ Arratsalde, astelehenetik ostirala bitartean, 14:30etatik 16:30etara, 1go urratsa, 3.urratsa eta 7.urratsa
- ✗ Gueuz, astelehenetik ostegunera bitartean, 3. urratsa
- ✗ Astean bitan EGA

Udalaren dirulaguntza %100ean guraso eta langabetuentzat!

Informazio zabalagoa nahi izanez gero deitu 943 37 20 01 telefonora.

ANIMATU ETA ETORRI LOKAL BERRIA ESTREINATZERA!

**Oraindik zalantzan bazaude, oraintxe duzu aukera.
MATRIKULA ZAITEZ ETUMETA AEK EUSKALTEGIAN**



BAZKIDIE TXARTELA

5000 PEZOKA URTE OSORAKO



Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrontea (20 digito): _____

Momentu honetan 525 bazkidek osatzen dute Noaual Kultur Elkartea

USURBILGO OFIZIOAK ZURE ESKURA DITUTU

Igeltseritza

Iturgintza

Aroztegiak

URDANTZI

**IÑAKI
LATAILLADE**

Iturgintza gas eta bero-
gintza
I N S T A L A K U N -
Mobila: 609 888021

BEREZIARTUA

Egurrezko
aluminioegurrez-
ko

Agir Telf: 43 37 5 71

**ERRAZKIN
IGELTSEKITZA**

Kale Nagusia, 1
☎ 943 37 26 79 ☎ 36 51 25
Santutenea ☎ 629 42 05 65

PORTULARRUME

BAINUKO ALTZARIAK



Telf: 943 36 46 37

**JOSE RAMON
IBARGOEN**

Neurriko altzariak eta sukaldeak
Erratiberrí kalea, 3 Osinalde
☎ 943 36 14 48 -
Faxa: 943 36 69 45

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teitatuén berritzea



Fatxadén konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67

JOSUE ARANZATZIS

Igeltseritza eta pintura
Juan Jose enea, 6
Kalezar
% 943 36 05 50- 606 37 21 05

**JOSE MARI
KATZA**

Ugarte, 4 Kalezar
Telf eta fíxa: 943 37 12

Mob: 659 602789

**JOSEBA
ARANGU**
☎ 943 83 00 72

Eskubla

**JOSE ANTO-
NIO**

Galtzaragaina 2-2B
Telf 943 37 34 70

Pinturak

**RAMON
BARCENILLA**

• Pikor pintura eta goiele lanak
• Papereztatze- lanak
• Pintura-lanak orohar

Mobila: 609 46 09 66

Elektrizitatea

MIKEL IZAGI

Goiz-Argi etxea, 37
Kalezar
Telf: 943 36 50 95

**EUGENIO
NORIEGA**

Erdiko kalea, 12
Atxegalde
Telf: 943 36 56 65- 616 92 60 25

*Pinturas
lon*

943 83 09 37- 670 39 75 04

Gida honetan azaldu
nahi baduzu, deitu!
943 36 03 21
telefonora